

# ELKAR-ZAINTZA PLANA

## HUHEZI-XXXXX

Prozesu partehartzailea **martxan** jarri.  
Helburua: denon artean igarobide momentuetan egon daitezken hobetzekoak identifikatu eta aurrera eramatea

2019

## TALDE ERAGILEA SORTU

Lehenengo zeregina: 2019an eginiko **diagnosiaren azterketa**  
Diagnosiaren azteketatik, hobetzekoak identifikatu eta **ekintza plana** osatu dugu  
**Prozesua adostu**

2020-2021

## EKINTZA PLANA

Hainbat ezaugarri betetzen ditu eta ekintza desberdinekin osatzen da.

2021

## UDA BAINO LEHEN

Iraupen laburreko **proiektu bat** egitea pentsatu dugu eta proiektu horretan zuen hurrek (eta baita zuek ere) hurrengo ikasturtean izango dituzten aldaketen berri jasoko duzue (espazio berriak, lan egiteko modu berriak...).

## TUTORETZA

Prozesua nola **bizitzen** ari diren jakiteko eta ume/gazteen kezka, irudikapenak eta zalantzak argitzeko.

## ENBAXADOREA

Prozesu horretan "enbaxadore" bat izango dute haur guztiek eta baita zuek ere. Enbaxadorearen helburua da igarobidean dauden haurrak zein familiak **laguntzea eta behar duten informazioa eskaintzea**.

## UDAKO KOADERNOA

Familia osoarentzako baliagarria izan daitekeen koaderno bat egitea proposatzen dizuegu igarobide prozesuan lagungarri izateko.

## JAIALDI ETA AUZOLAN MOMENTUAK

Familientzako espazio informalagoak ere aurreikusten ditugu, hala nola, jaialdiak eta auzolanerako momentuak

# Agur xxxx!

Orain arte 5 urteko geletan zenbait ekintza egiten ziren, H.H agurtu eta L.Hra begira jartzeko. Ekintza solte hauetatik abiatuta, proiektu forma ematen ahaleginduko naiz.

Maiatza aldean gaia mahai gaineratzen hasiko gara.

Ikasleek lehenengo mailaren inguruan zer dakiten galdetzen hasiko gara, anai-arrebarik duten, etxekoek zer dakiten beste eraikinari buruz, nolakoa da, zenbat pixu ditu, nolako patioak, irakasleak....

## Mural/ipuin bat gurasoentzako informazioarekin

Umeei dakitenarekin eta etxetik ekarritako informazioarekin eta jakin nahi duguna gehitzen joango gara. Informazio horrekin familientzako aurkezpen bat prestatu ( ipuin, aldizkaria, folleto, blog, bideo...)

## ZER EGINGO DUGU?

## EKINTZAK Igarobidean sentitzen duguna adierazteko

### 01

- **Proiektuaren hasieran:** ikasle bakoitzak igarobidearen aurrean sentitzen duena adieraziko du. Zer sentitzen dut eta zergatik?
- **Proiektu bukaeran:** beste espazio, irakasle eta dinamika ezagutu eta gero, ikasleei galdera berdina botako diegu.
- **Bukatze:** hasiera eta bukaeraren arteko konparaketa egingo dugu, lortutako informazioak bakoitzari zertan lagundu digun aztertze. (Lasaia, urduri, beldurtuta, motibatuta.....)

## Eskola eta espazioak ezagutzeko

- Beste eraikinera joan, argazkiak atera eta gure muralean gehitu
- Gure eraikinaren helbidea eta bestearena konpara ditzakegu.
- Bidea nondik nora doan plano bat egin dezakegu.
- Bi eraikinak XXXX mapan kokatuz.
- Eskolako aurkezpena beste ikasleen partetik

### 02

## TUTORETZAREKIN LOTURA

## Gelak eta irakasleak ezagutzeko

### 03

- Goiz batean XXX eskolakoekin batera, L.Hko geletara joango gara, irakasle eta ikasleei zenbait galdera egitera.
- Denon artean zer galdetu nahi dugun pentsatuko eta galderak prestatuko ditugu. Lortutako informazioa gure muralean jasoko dugu.[Tutoretzan definitutako ekintzekin lotu eta agian ipuin, aldizkari, bideoa gurasoentzako informazioa sortu, familien hizkuntzaren arabera hizkuntz desberdinetan egin daiteke?]
- Irakasleak gure geletara gonbidatuko ditugu, ezagutzen joateko eta nolakoak garen ikus dezaten (5 urte ditut eta honelakoa naiz).Orain arte zer ikasi dugun kontatuko diegu irakasleei, zer ikasi nahi dugun L.Hn....
- Guk, ekintzaren bat prestatuko dugu,( abesti bat, dantza bat...) eta beraiei ere guretzako zerbait presta dezaten eskatuko diegu(Ipuin bat kontatu , lehenengo maila hasieran egiten diren jolasak erakutsi, egin duten proiektu baten aurkezpena egin....)

## Itxiera

Eskolako jaiarekin bukatu edo Eskolako aurkezpena beste ikasleen partetik

### 04

## Eta hurrengo urtean zer? Ideiaren bat?

BESTE JARDUERA BATZUEN PROPOSAMENAK HH-LH

# Zikloen artean

Igarobide honetan ikasleek ez dute eraikinez aldatzen, beraz barneko trantsizioa lantzeko proiektua planteatu daiteke:

**Proiektuaren helburua:** handitzen doazen eina emango diren aldaketak ezagutzea izango litzateke. Nola sentitzen diren aldaketaren aurrean eta zer espero duten berbalizatuz.

## Hurrengo ikasturteko gelaren aurkezpena

## ZER EGINGO DUGU?

Lortutako informazioarekin, ikasle bakoitzak, adinaren arabera (**Word dokumentu bat, power point bat, bideo bat, aldizkari bat, triptiko bat...**) egingo dute, Bertan, ezagututako aldaketak jasoko dituzte eta etxeetara eramango dute familian partekatzeko.

## ..... EKINTZAK

## Sentimenduak landu

### 01

- **Proiektuaren hasieran:** ikasle bakoitzak igarobidearen aurrean sentitzen duena adieraziko du. Zer sentitzen dut eta zergatik?
- **Proiektu bukaeran:** beste espazio, irakasle eta dinamika ezagutu eta gero, ikasleei galdera berdina botako diegu.
- **Bukatzeko:** hasiera eta bukaeraren arteko konparaketa egingo dugu, lortutako informazioak bakoitzari zertan lagundu digun aztertzeko. (Lasaiago, urduri, beldurtuta, motibatuta.....)

TUTORETZAREKIN LOTURA

### 02

## Taldekatze aldaketak

- Taldekatzeak lantzeko: maila guztiko ikasleekin bakoitzak ze lagunekin egon nahi duenaren arabera zerrenda planteatu dezake. Taldeak egiteko kriterioak landu, kopurua....

### 03

## Aldaketak ezagutzeko

- Irakasleak ezagutzeko: gelara gonbidatuko ditugu hurrengo zikloko irakasleak eta galdera batzuk prestatuko ditugu jakin nahi dugunaren arabera.
- Lantzen denaren inguruan jakin mina: hurrengo zikloko ikasleak gonbidatuko ditugu egindako proiektu baten aurkezpena egin dezaten.
- Familiek jakiteko: etxean ere, zerbait jakin nahi duten galdetu dezakete. Etiketrik ekarritako galderei denon artean erantzun jasotako informazioaz baliatuta.

## Itxiera

Eskolako jaiarekin bukatu edo Eskolako aurkezpena beste ikasleen partetik

### 04

## Eta hurrengo urtean zer? Ideiaren bat?

..... BESTE JARDUERA BATZUEN PROPOSAMENAK HH-LH

# DBHra!

Igarobide honetan ematen dira aldaketa gehien: eraikuntza, taldeak eta dinamika aldatzen baitira.

**Proiektuaren helburua:** kasu honetan emango diren aldaketa guztiak ezagutu eta hauen aurrean sentitzen dutena nola kudeatu ahal duten ikasten laguntzea izango da.

## Kazetari edo ikerketa lanetan jarri

Talde bakoitzak jasotako informazioa beste ikasleen aurrean aurkeztuko du eta denon informazioa batuta dossier antzeko bat egin dezakete.

Beste eskoletatik etorriko diren ikasleei, egin dugun lanaren aurkezpen bideo bat bidali diezaiekegu, elkar ezagutzen joateko.

.....

## ZER EGINGO DUGU?

### EKINTZAK 01

#### Sentimenduak lantzen

Proiektu hasieran nola sentitzen diren identifikatzen hasiko gara. Aldaketa handia da eta adina kontutan hartuta, gai honi buruz hitzaldi edo filmaren bat ikus dezakete.

TUTORETZAREKIN LOTURA

.....

## Informazioa eskuratzen

### 02

- Ikastetxea [instituo] nolakoa da. Espazio guztiak ezagutu beharko dituzte [ZIG, gela egonkorra, Dibetsifikazio gela...]
- Orduategia eta irakasleak.
- Lan dinamika.
- Taldekatzeak, herri ezberdinetako ikasleak elkartuko dira.

Gai hauetan oinarrituta talde bakoitzak, tokatu zaionaren inguruko informazioa jaso beharko du, horretarako, plangintza bat egin beharko dute eta lanak banatu.

.....

### 03

#### Udari begira

Beste eskoletako ikasleekin egiteko, ekintzen egitarau bat proposatu daiteke.

- Egin daitezken ekintzak planteatu eta antolatu
- Informazioa nola partekatu, difusio taldeak prestatu.

.....

## Itxiera

### 04

Familiei dagokionez, informazioa pasatzeko eta XXX eskolari, "agur" esateko, batzar-festa antzeko bat antolatu daiteke.

Enbaxadoreen paperak ere erabil ditzakegu, gurasoen arteko informazioa banatzeko.

.....

**Eta hurrengo urtean zer? Ideiaren bat? Nola lotu harrera astearekin institutoan?**